

# txirripist!

Udagoieneko\*arratsalde baten  
Arratia-ko artzain\*gazte bat  
Gorbeia-ra bidean joian tapa-tapa,  
txakurra alboan, zorroa lepoan eta makila eskuan.  
Joan eta joan  
txabolara heldu\*baino lehen gautu egin jakon.  
Iluna zan gaua eta bidea ez hain ona,  
baina ondo azagutzen ebala-ta nasai joian mutila.  
Arraba-ko landara heldueran  
intzirika\*hasi jakon txakurra.  
— Intziri zeri egiten de<sup>deutsazu</sup>tsak, Txipi? —esan eutsan.  
Eta, bada-ezpadan, batera eta bestera begiratu eban.  
Ez eban inor, ez ezer, ikusi.  
— Aurrera, bada! —esan eutsan txakurrari.  
Eta aurrera egin eben biok bidean gora.  
Baina txakurra intzirika hasi jakon ostera ere.  
— Intziri zeri, Txipi?  
Eta barriro alboetara begiratu ondoren,  
bada-ezpadan,\*atzekaldera ere begiratu eban.  
Eta DIZ-DIZ-DIZ...! argi dizdira\*bat ikusi eban.  
— Zer izan dök hori? —esan eban— Oinaztua?\*

Eta gogortuta gelditu zan bildurraren bildurrez.  
Begiratzen dau ostera ere, eta DIZ-DIZ-DIZ...!

— Oinaztua?! Zera oinaztua!  
Inpernuko argia bera dök hori! —esan  
eta arineketeari emon eutsan.  
Baina argi dizdiratsua ere atzetik joakon...  
Bizkor joian artzaina; bizkor, txakurra ere,  
baina argia bizkorrago...  
Estu, mutila.  
Igirinao-ra heldueran pot egin\*beharrean egoan,  
indarge\*eta arnas-oska\*.  
Begiratzen dau atzekaldera eta...  
— Ene! Katigatu egin dök argia pago-adar\*baten!  
Eta adoretu\*egin zan,  
eta bular-auspoa\*ondo putziturik  
ba doa bertara... eta dzast!  
jeurti\*egin eutsan makila  
eta jo egin eban, bete-betea jo ere!

TXIRRIPIST! egin eban argiak zati-zati eginda.  
Zati hareek deabru bihurtu ziran... Eta ha zan, gero, izatekoa!  
Kurlobioak\*habitik urteten daben legez  
halantxe urten eben argitik inpernuko danganino\*hareek ere!  
Hori ikusirik  
txirripuztika\*baten aldendu ziran handik  
txakurra eta bere jabea.  
Igirinao-ko ermitara heldu eta bertan sartu ziran  
eta han igaro eben, ateak ondo itxita, gau osoa.  
Deabruak, barriz, kanpoan gelditu ziran,  
baina ez geldi:  
inguruan biraka\*eta durrundara hotsean...  
barrura sartu ezinik ermitea zalako.  
Eguna urratzean,\*deabruok,  
iluntasunaz batera joan ziran,  
eta artzaina eta txakurra  
bakarrik eta bakean gelditu ziran.



\* udagoiena = udazkena  
\* artzain = ardit zain  
\* heldu = allegeu  
\* intzirika = aisi-etenka

\* bada-ezpadan = por si acaso  
\* dizdira = destello, resplandor  
\* oinaztua = relámpago

\* pot egin = ezin gehiago  
\* indarge = exhausto  
\* arnas-oska = jadeante

\* pagoa = haya  
\* adoretu = animarse  
\* bular = tórax, pecho

\* jeurti = bota  
\* kurlobioa = avispa  
\* danganino = deabrua

\* txirripuztika = arineketan  
\* biraka = dando vueltas  
\* eguna urratu = despuntar el día